

# ALCATEL

## OT-710 -aren

### Erabiltzailearen eskuliburua



**ALCATEL**  
mobile phones

[www.alcatel-mobilephones.com](http://www.alcatel-mobilephones.com)

Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua



# Sarrera .....

TCT Mobilek eskerrak ematen dizkizu telefono hau erosteagatik.

## Mahaigaina

- Widget aplikazioen ikuspegi orokor eroso.
- Menuetara lasterbideak, aukeretara bizkor sartzeko.
- Aplikazioen antolaketa argia edozein gunetan.

## Multimedia-aplikazio eraginkorrak

- Musika-irakurgailua eta Irratia
- Webcam-a

2,0 megapixe-leko kamera osagarri onena da PCrako berehalako mezularitzarako.

## Bluetooth

Erabili esku libreko funtzioa, A2DF profilak dituen Bluetooth 2.0aren bidez.

## Nire lagunak

Ohiko webguneak (adibidez, Bebo, Friendster, hi5, MySpace, eta abar), edozein tokitan zaudela, nahi duzunean, lagunekin harremanetan jartzeko.

# Aurkibidea

<b>Erabiltzeko oharrak .....</b>	<b>6</b>
<b>Informazio orokorra .....</b>	<b>11</b>
<b>1 Martxan jartzea.....</b>	<b>13</b>
1.1 Erabiltzeko moduan jartzea.....	13
1.2 Telefonoa piztea.....	15
1.3 Telefonoa itzaltzea.....	15
1.4 Ukipen-pantaila erabiltzea.....	15
<b>2 Zure telefonoa .....</b>	<b>16</b>
2.1 Egoera-barrako ikonoak.....	18
2.2 Egoera-zerrenda.....	20
2.3 Mahaigaina.....	20
2.4 Tresna-barra.....	21
<b>3 Markagailua.....</b>	<b>22</b>
3.1 Deiak egitea.....	22
3.2 Ahots-postontzira deitzea.....	23
3.3 Deiak jasotzea.....	23
3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean.....	24
3.5 Konferentzia.....	25
3.6 Linea-aldaketa.....	26
<b>4 Menua antolatzea.....</b>	<b>27</b>
<b>5 Mezuak.....</b>	<b>28</b>
5.1 Sarbidea.....	28
5.2 Elkarrizketa-modua eta modu konbentzionala.....	28
5.3 Mezu bat sortzea.....	29
5.4 Bilatzea.....	29
5.5 Alarmak.....	29
5.6 Erabilgarri dauden aukerak.....	30
<b>6 Posta elektronikoa .....</b>	<b>33</b>
6.1 Sarbidea.....	33
6.2 Posta elektronikoko kontuak konfiguratzea.....	33
6.3 Mezu elektronikoak idaztea.....	34

6.4 Jasotako mezuak.....	34
6.5 Bidali gabeko mezuak.....	34
6.6 Bidalitakoak.....	34
6.7 Zirriborroak.....	34
6.8 Erabilgarri dauden aukerak.....	35
<b>7 Palringo .....</b>	<b>36</b>
7.1 Sarbidea.....	36
7.2 Palringo kontu bat on line irekitzea.....	36
7.3 Erregistratzea/Saioa ixtea.....	36
7.4 Zerbitzu bat gehitzea.....	37
7.5 Txata.....	37
7.6 Kontaktuak.....	37
7.7 Taldeak.....	37
<b>8 Telefono-aurkibidea .....</b>	<b>38</b>
8.1 Telefono-aurkibidea kontsultatzea.....	38
8.2 Kontaktuak eranstea.....	39
8.3 Erabilgarri dauden aukerak.....	40
<b>9 Dei-zerrenda .....</b>	<b>41</b>
9.1 Sarbidea.....	41
9.2 Erabilgarri dauden aukerak.....	41
<b>10 Multimedia-aplikazioak.....</b>	<b>45</b>
10.1 Musika.....	45
10.2 Irudia.....	48
10.3 Bideoak.....	49
10.4 Irratia.....	49
<b>11 Internet .....</b>	<b>51</b>
11.1 Nire lagunak.....	51
11.2 Opera.....	51
11.3 Wap.....	51
11.4 Berriak.....	53
11.5 Eguraldia.....	54
11.6 Facebook.....	55
11.7 mTweet.....	55

<b>12 Aisia .....</b>	<b>56</b>
12.1 Kronometroa.....	56
12.2 eBook.....	56
12.3 Java.....	57
<b>13 Kamera .....</b>	<b>59</b>
13.1 Sarbidea.....	59
13.2 Kamera.....	59
13.3 Bideoak.....	60
<b>14 Profilak .....</b>	<b>62</b>
14.1 Orokorra.....	62
14.2 Bilera.....	63
14.3 Kanpoan.....	63
14.4 Barruan.....	63
14.5 Isilik.....	63
14.6 Hegaldiko modua.....	63
<b>15 Fitxategiak kudeatzea .....</b>	<b>64</b>
15.1 Nire soinua.....	64
15.2 Nire irudiak.....	65
15.3 Nire bideoak.....	65
15.4 eBook.....	65
15.5 Nire sorkuntzak.....	65
15.6 Beste fitxategi batzuk.....	65
15.7 Telefonoa.....	65
15.8 Memoria-txartela.....	66
15.9 Audio-fitxategiak, argazkiak, bideoak eta abar kudeatzea.....	67
15.10 Formatuak eta bateragarritasuna.....	68
15.11 Memoriaren egoera.....	68
<b>16 Bluetooth-a .....</b>	<b>69</b>
<b>17 Besteak .....</b>	<b>71</b>
17.1 Egutegia.....	71
17.2 Kalkulagailua.....	71
17.3 Oharrak.....	72
17.4 Zereginak.....	72
17.5 Erlojua.....	73
17.6 Bihurgailua.....	74

<b>18 Doikuntzak .....</b>	<b>75</b>
18.1 Telefonoaren doikuntzak:.....	75
18.2 Deien doikuntzak.....	78
18.3 Segurtasuna .....	78
18.4 Sareak.....	79
18.5 Konektagarritasuna .....	79
<b>19 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari .....</b>	<b>80</b>
19.1 PC programa-paketea.....	80
19.2 Webcam-a.....	80
<b>20 Testua idazteko modua / Karaktereen taula .....</b>	<b>81</b>
<b>21 Telefonoaren bermea .....</b>	<b>84</b>
<b>22 Osagarriak .....</b>	<b>86</b>
<b>23 Arazoak eta irtenbideak.....</b>	<b>87</b>

## Erabiltzeko oharrak .....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/jedo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

### • SEGURTASUNA IBILGAILUAN:

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, aurikularrak..) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo aurikularrak musika edo irratia entzuteko. Aurikularrak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke hainbat eremutan debekatuta egotea.

Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari, ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irriti-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

### • ERABILTZEKO KONDIZIOAK:

Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu. Itzali telefonoa hegazkinean.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irriti-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan. Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, insulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiari erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrian, baizik beste aldekoan. Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarri hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen amplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi haurrei telefonoa edo telefonoaren osagaiak erabiltzen edo horiekin jolasten, zu inguruan ez bazaude. Karkasa desmontagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketean substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsirik gabeko leku garbian. Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna edo kondentsazioa, eurria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa, etab.). Fabrikatzaileak -10 °C eta +55 °C bitarteko temperatura gomendatzen du.

55 °C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, larrialdi-zenbaki batzuetara ezin da deitu. Ez izan erabateko konfiantzarik zure telefonoa larrialdi-deiak egiteko.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefonoa erekin bateragarriak diren Alcatel bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili (fikus osagarrien zerrenda, 86. orrialdean). Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Persona batzuek epilepsi krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsi krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan dezake. Krisitan bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familia horrelako zerbaite gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsua aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsua dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorrarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- orduro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkiz edo minduta sentitzen badituzte, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jolastu gehiago eta joan medikuaenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



Musika-erreproduzitailean musika luzaroen ozen entzunda entzumenari kalte egiteko arriskua dago.

Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited-en eta honen bazkideen entzungailuak.

## • BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATzea:

Telefono mugikorrarekin argazkiak ateratzeari eta soinua grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri personalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardurara da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

## • BATERIA:

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60 °C-tik gorako tenperetura.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limited-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriak ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezuean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzia bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haren osagaiak berrerabili egingo dira.

### Europako Batasuneko herrialdeetan:

bitzeko puntuetarako sarbidea doakoa da eta ikur huri duten produktu guztiak horrelako ontzietara bota behar dira.

### Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

herrialde edo eskualde horretan bitzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.

**KONTUZI:** BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEI.

## • KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu. Zehaztapen elektriko ugari aplikatu daitezkeenez, gerta daiteke herrialde bateko kargagailu batek beste herrialde batean ez funtzionatzea. Diseinatu zuten helbururako soilik erabili behar dira.

## • UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK:

Telefono mugikorraren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorraren erabiltzaileena– eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da. IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK. Zure telefono mugikorra irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da. Nazioarteko eskakizunek (ICNIRP) <sup>[1]</sup> eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) <sup>[2]</sup> gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatu diseinatu eta fabrikatuta dago. Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute, eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Aditu independenteek ezarri dituzte, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehaztuta oinarrituz. Segurtasun-tarte handia hartzen duten kontuan, guztion segurtasuna bermatzeko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera. Telefono mugikorraren arauak "SAR" (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikokoaren Tasa) izeneko neurri-unitateak definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga 2 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste. Probak potentzia-mailarik altuena igorritz egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan.

SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreala, normalean, probatan lortutako gehienezko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinatu dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak.

Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehienezko balioa belarriaren ondorako eta arauaren arabera 1,1 W/kg da. Nahiz eta SAR mailak telefono batek bestera edo erabiltzeko modu batek bestera aldatu, maila guztiek irrati-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte.

<sup>[1]</sup> ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hego Amerika, Iparraldeko eta Hegoaldeko Afrika, Asia-Pazifikoa (Korea izan ezik), Australia.

<sup>[2]</sup> Europako gomendioa (1999/519/EE) herrialde hauetan aplikatzen da: Europa, Israel.

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritziz, "egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrak erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irrati-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera erabiltz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago" (Memo 193. zk). MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Telefono mugikorra erabiltzeak kalterik sor ditzakeenik frogatu ez den arren, Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen du sare-estalduraren maila on eta den kasuetan erabiltzea telefonoa, telefonoaren pantailan ageri den moduan (4 edo 5 marrazko). Horrez gain, gomendatzen da, telefono bidezko komunikazioetan, telefonoa urrun edukitzea haundun dauden emakumeen sabeletik eta nerabeen sabelaren behealdetik.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kaliterik onena izateko, ez ukitu edo hondatu. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabili daitezke. Entzungailuekin edo USB datuen kablearekin erabiltzean, gailuak dagokion norabidean egon behar du. Beste osagarrien bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta kokatu telefonoa gorputzetik 2 cm-ra gutxienez.

## • LIZENTZIAK

Obigo®



izi eZiText™  
zicorporation



Opera Mini™

facebook

twitter

Obigo AB-ren marka erregistratua da.

MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.

Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira eta TCT Mobile Limited-ek eta horren filialek marka horiek lizentziatzen erabiltzen ditu. Gainerako marka eta izen komertzial guztiak dagozkien jabeenak dira.

### OT-710 Bluetooth QD ID B017053

Zi corporation-en eta/jedo haren bazkideen marka komertzialak dira eZiText® eta Zi®.

Java® eta Java®-n oinarritutako marka komertzial eta logotipo guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira, eta AEBetan eta beste herrialde batzuetan dituzte egoitzak.

Opera Mini-ren marka erregistratua da.

Facebook, Inc.-ren marka komertzialak dira Facebook eta f logotipoa, eta lizentziatzen erabiltzen dira.

Twitter, Inc.-ren marka komertzialak dira Twitter eta T logotipoa, eta lizentziatzen erabiltzen dira.

## Informazio orokorra .....

- **Interneteko helbidea:** [www.alcatel-mobilephones.com](http://www.alcatel-mobilephones.com)
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "TCT Mobile Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.

Interneteko gure webgunean, ohiko galderen atala kontsulta dezakezu (FAQ). Posta elektronikoaren bidez ere jar zaitezke gurekin harremanetan, edozein zalantza galdetzeko.

Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu: [www.alcatel-mobilephones.com](http://www.alcatel-mobilephones.com)

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 850, 900, 1800 eta 1900 MHz bandetan.

# CE | 588

OT-710 telefono mugikorrek 1999/05/CE zuzentarauko oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen ditu. Zure telefonoaren Adostasun Deklarazioaren kopia osoa eskuratu dezakezu gure web-orrian: [www.alcatel-mobilephones.com](http://www.alcatel-mobilephones.com).

## Lapurretaren aurkako babesa <sup>(1)</sup>

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Telefonoa erabiltzen duzun lehen aldian zenbakia idatziz jasotzea eta leku seguru batean gordetzea gomendatzen dizugu (\* # 0 6 # sakatuta). Gerta liteke poliziak edo zure operadoreak eskatzea telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

## Erantzukizunik eza


Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoen arabera.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

# 1 Martxan jartzea.....


## 1.1 Abiaraztea

Atzeko tapa ateraztea/jartzea



SIM txartela sartzea eta ateraztea <sup>(1)</sup>


SIM txartela sartu behar duzu deiak egiteko. Itzali telefonoa SIM txartela sartu edo atera aurretik.



Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu eta kanporantz atera.


<sup>(1)</sup> Egiaztatu zure sare-operadorearekin zure SIM txartela 3 edo 1,8 voltioko tentsioarekin bateragarria dela. 5 voltoko txartel zaharrak ezin dira erabili. Jarri harremanetan zure operadorearekin.

Bateria jartzea/ateraztea



- Sartu bateria eta lerratu bere lekuan klik egin arte.
- Kendu tapa eta, ondoren, batera atera.

Bateria kargatzea



Bateria-kargagailua konektatu

- Kargagailuak 20 bat minutu beharko ditu kargatzen hasteko, bateria guztiz agortuta badago.
- Ez behartu telefonoaren hartunea.
- Egiaztatu bateria ongi sartu duzula kargagailua konektatu aurretik.
- Korrante-hartuneak telefonotik gertu egon behar du, errazago iristeko (luzapen elektrikoak ez erabiltzea gomendatzen da).
- Telefonoa lehenengo aldiz erabiltzean, bateria erabat kargatzea aholkatzen dizugu (3 orduz gutxi gorabehera). Behar bezala funtziona dezan, telefonoa erabat kargatu behar duzu (🔋).



Bateria erabat betetzen denean animazioa gelditu egiten da.



## 1.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu ☞ tekla telefonoa piztu arte; behar izanez gero, tekleatu PIN kodea eta berretsi. Hasierako pantaila agertuko da.

PIN kodea zein den ez badakizu edo ahaztu bazaizu, jarri harremanetan operadorearekin. Ez utzi inoiz PIN kodea telefonotik hurbil. Txartela erabiltzen ez duzunean, gorde leku seguruan.

Sarearen bidez banatutako mezuak bistaratzan badira, ukitu, mezu guztiak bistaratzeko edo sakatu ☞ hasierako pantailara itzultzeko. Telefonoa sarea bilatzen ari denean, pantailan **“Bilatzen/Larrialdia”** agertuko da.

Pizte-pantailatik funtzio hauetara sartzeko aukera ere izango duzu, besteak beste: **“Irratia”**, **“Kamera”** eta **“Musika erreproduzigailua”**, baita SIM txartela sartu gabe dagoenean ere.

## 1.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu hasierako pantailako ☞ tekla pantailako.

## 1.4 Ukipen-pantaila erabiltzea

### Ukitu

Aplikazio batera sartzeko, ukitu behatzarekin.


### Arrastatu





Jarri behatza pantailan objektua helburuko kokalekura arrastatzeko.

### Desplazamendu-tekla

Korritu pantaila aplikazio, irudi, web-orri eta abarretan gora eta behera mugitzeko.

## 2 Zure telefonoa



-  • Esekitzeko tekla
- Deia egiteko tekla
- Deien erregistroa kontsultatzeko (berriro deitzeko) (labur sakatuta)
-  • Telefonoa pizteko/itzaltzeko tekla (luze sakatuta)
- Esekitzeko tekla
- Hasierako pantailara itzultzeko tekla
- Hasierako pantaila blokeatzeko tekla (labur sakatuta)
-  • Bolumen-tekla: Bolumena igotzeko / jaisteko  
Hurbiltzeko/Urruntzeko  
LCDaren kalibrazioa (luze sakatu pantaila nagusiaren botoia)
-  • Ekintzaren bat gertatzen denean, argiak keinu egiten du (dei galdu bat, ahots-postontzia edo mezua).
- Dei bat jasotzen denean, argiak keinu egiten du, eta telefonoak bibratu.
- Kargatzen ari den bitartean argia piztuta egoten da, deskonektatu arte.

## 2.1 Egoera-barrako ikonoak <sup>(1)</sup>



**Bateriaren karga-maila.**



**Bibragailua modua:** zure telefonoak dar-dar egiten du baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen, alarmen kasuan izan ezik (ikus 62. orrialdea).



**Bluetooth-aren egoera** (Aktibatuta).



**Bluetooth-aren egoera** (audio-gailu bati konektatuta).



**Entzungailuak konektatuta.**



**Teklatua eta ukipen-pantaila blokeatuta.**



**Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta:** deiak desbideratu egingo dira (ikus 43. orrialdea).



**Programatutako alarmak edo hitzorduak** (ikus 71. eta 73. or.).



Estaldura-adierazlea.



Mezu berria ahots-postontzian.



Galdutako deiak.



Kronometroa aktibatuta dago.



















Irratia piztuta.



**WAP oharrak** <sup>(2)</sup>.

<sup>(1)</sup> Gidaliburu honetako ikonoak eta irudiak lagungarriak dira.


<sup>(2)</sup> Sare-operadorearen arabera.

-  Roaming-a.
-  Amaitu da memoria-txartelaren azterketa.
-  SIM txartela falta da.
-  **Linea-aldaketa** <sup>[1]</sup>: aukeratutako linea zein den adierazten du.
-  **GPRS konexioaren egoera** (Aktibatuta).
-  **GPRS konektatzen.**
-  **Musika-irakurgailua** aktibatua.
-  **Mezua** jasotzen ari da.
-  **SMSa bidaltzea.**
-  **MMSa bidaltzea.**
-  **Isilik modua:** zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik (ikus 63. orrialdea).
-  **Irakurri gabeko SMSa**
-  **(gorriz) Mezua laburren zerrenda beteta:** zure telefonoak ezin du mezua gehiago jaso. Mezuen zerrendara joan behar duzu, gutxienez SIM txarteleko mezua bat ezabatzeke.
-  **Hegaldiko modua.**
-  **A2DP konektatuta.**
-  **Erreprodukzioa martxan dago.**

<sup>[1]</sup> Sare-operadorearen arabera.

## 2.2 Egoera-zerrenda


Egoera-zerrendak ekitaldi garrantzitsuei buruzko informazioa du (dei galduak, irakurri gabeko mezua eta mezua elektrikoak) baita musika-irakurgailuaren eta irratiaren erreprodukzioari buruzko informazioa ere. Zerrenda horren helburua da aplikazio interaktiboetara bizkorrago sartzea.

Egoera-barra irekitzeko, ukitu ezazu eta arrastatu behera. Ezkutatzeko, ukitu  edo arrastatu gora. Aplikazio bat irekitzeko, ukitu menu bat zerrenda bat irekitu dagoenean.



## 2.3 Mahaigaina

Jarri gehien gustatzen zaizkizun edo maiz erabiltzen dituzun gauzak mahaigainean, horietara bizkor sartzeko.


### Elementuak gehitzea

Menu nagusiko elementu bat gehitzeko, luze sakatu ikonoa menu nagusiko zerrendan. Widget bat eransteko, sakatu tresna-barraren tekla edo luze sakatu  pantaila nagusiaren hondoan. Ondoren, sakatu **“Gehitu widget-a”** widget-en zerrendara sartzeko, eta hautatu erantsi nahi duzun elementua.

### Elementuak editatzea/ezabatzea/berrantolatzea

Luze sakatu mahaigainaren aplikazioa widget-ak editatzeko/ezabatzeke/berrantolatzeko, sakatu  editatzeko (gogokoen kasuan bakarrik) edo sakatu  ezabatzeke. Luze sakatu aplikazioa, mahaigainean kokapen-koadroa bistaratu arte; arrastatu nahi duzun kokapenera eta berretsi ekintza, **“Eginda”** sakatuta.

## Pantailaren atzeko planoa




Pantailaren horma-papera pertsonalizatzeko, sakatu tresna-barra  edo luze sakatu pantaila nagusiaren hondoa. Ondoren, sakatu **“Horma-papera”**. Aukera honekin **“Nire irudiak”** aukerara bideratuko zaitu. Argazki bat hauta dezakezu horma-paper gisa jartzeko (ikus, 48. or.).

## 2.4 Tresna-barra

Menuen aukeretan, lasterbideak dituen tresna-barra.







## 3 Markatzailea

Funtzio honetara sartzeko, aukera hauetako bat hauta dezakezu:



- Hautatu  zuzenean, hasierako pantailako tresna-barran.
- Hautatu  tresna-barran, menu nagusira sartzeko, eta sakatu .

### 3.1 Deitzea




Sartu nahi duzun zenbakia zuzenean teklatuan edo hautatu Agendako kontaktu bat. Horretarako ukitu , eta ondoren sakatu  tekla edo ukitu  deia egiteko. Markatu duzun zenbakia Agendan gorde dezakezu,  hautatuz. Nahasten bazara eta okerreko zenbakiak ezabatu nahi badituzu,  ukitu behar duzu. Esekitzeko, sakatu  tekla.


## Larrialdiko deia egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  tekla, edo ukitu  larrialdi-deia egiteko. SIM txartelik gabe ere funtzionatzen du, baita PIN kodea sartu gabe eta teklatura desblokeatu gabe ere.

### 3.2 Ahots-postontzira deitzea <sup>[1]</sup>

Deirik ez galtzeko, sareak ahots-postontziaren zerbitzua du. Zerbitzu honek erantzungailu gisa funtzionatzen du, eta edozein unetan kontsulta dezakezu postontzi hori. Ahots-postontzira sartzeko, luze sakatu  pantailako teklatura.

Zure postontzira sartzeko zenbakirik ez baduzu, sartu operadoreak adierazitako zenbakia. Zenbaki hori aldatzeko, erabili **“Nire zenbakiak”** aukera (ikus 41. orrialdea).


 Ahots-postontzia atzerrian erabiltzeko, jarri harremanetan operadorearekin bidaia egin aurretik.

### 3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, amaitzen duzunean, sakatu  tekla deia amaitzeko.



 ikonoa agertzen bada, bibragailua aktibatuta dago eta txirrinak ez du jotzen.

 ikonoa agertzen bada, bibragailua eta txirrina ez daude aktibatuta.

 Deia egin duen pertsonaren zenbakia sareak transmititzen badu bistaritzen da (galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez).

<sup>[1]</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

## Txirrina isilaraztea

Sarrerako doinua isilaraz dezakezu  sakatuta. . Sakatu  tekla deiarri erantzuteko.

### Dei bat ez onartzea

Sakatu  tekla behin, deia ez onartzeko, edo ez onartu deia SMS bat bidalita; horretarako, sakatu .

### 3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean <sup>[1]</sup>

Erabil ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure agenda  egutegia, mezu laburrak eta abar erabil ditzakezu, komunikazioa eten gabe.

 Deia martxan

 Pantaila blokeatzeko

 Bozgorailua aktibatzeko

 Bozgorailua desaktibatzeko

 Isilik aukera aktibatzeko

 Isilik aukera desaktibatzeko

 Teklatua bistaratzeko

 Esekitzeko

 Pantaila desblokeatzeko

 Teklatua ixteko

<sup>[1]</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.


**KONTUZ:** Bozgorailua erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako. Gainera, telefonoko deia Bluetooth gailura pasa dezakezu konektatuta daudenean.

Dei bat zain uzteko, ukitu .



### **Bolumena aldatzea**

Dei batean, bolumena doi dezakezu, bolumen-tekla erabilita.

### **Bi deiri erantzutea**

- Bigarren dei bati erantzun (kontsultatu 42. orrialdea eta egiaztatu **“Deiak zain uztea”** aukera aktibatuta dagoela)
- Hitz egiten ari zarela beste solaskide bati deitzeko, sakatu  eta hautatu **“Dei berria”**.

### **3.5 Konferentzia <sup>(1)</sup>**

Zure telefonoak une berean zenbait pertsonarekin hitz egiteko aukera ematen du (gehienez 5 solaskide). Dei bikoitza egin nahi baduzu, sakatu  eta hautatu **“Hitzaldia”**. Hirugarren dei bat jasotzen baduzu, hartu  tekla sakatuta eta hitz egin solaskide berriarekin.

Solaskide berriak konferentzian parte har dezan, sakatu  eta hautatu **“Hitzaldia”**.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

### **3.6 Linea-aldaketa <sup>(1)</sup>**

Zure SIM txartelak bi telefono-zenbaki izan ditzake. **“Deien erregistroa”** aukeran, hautatu **“Swap”** eta gero hautatu lehenetsitako linea bat: zure dei guztiak zenbaki hori erabilia egingo. Sarrerako deiak bi lineetatik jaso ahal izango dira.

Lehenetsitako linean programatutako zerbitzuek ez dute eraginik beste linearako hautatutako zerbitzuetan.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

## 4 Menua antolatzea



Zure ezarpenen arabera aldatzeko diseinatuta dago menu nagusia. Funtzio horretara sartzeko, hautatu  menu nagusira sartzeko, eta sakatu .

### Ordena aldatu

Sartu **“Menu-antol.”** atalera, jar zaitez mugitu nahi duzun menu nagusiko elementuaren gainean, eta sakatu **“Aukerak|Mugitu”**. Ondoren, menu nagusiko pantailara itzuliko zara, eta ... marka agertuko da hautatu duzun menu nagusian. Aska ezazu nahi duzun tokian.

### Erakustea/Ezkutatzea

Sartu **“Menu-antol.”**-ra; hautatutako menuaren ezkerreko egiaztapen-laukia ukitu erakusteko/ezkutatzeko, eta, ondoren, **“Aukerak|Gorde”**, eragiketa gordetzeko.

### Balioak berrezartzea

Menu nagusitik, hautatu **“Menu-antol.”** eta, ondoren, ukitu **“Aukerak|Berrezarri ezarpen lehenetsiak”** lehenetsitako menuaren ikuspegiara itzultzeko.

## 5 Mezuak



Telefono mugikor honen bidez, SMSak eta MMSak sortu, aldatu eta jaso ahal izango dituzu.



Multimedia-mezueta, bideoak irudiak, argazkiak, animazioak, eta doinuak bidal ditzakezu beste mugikor bateragarrietara eta helbide elektronikoetara.



Multimedia (MMS) funtzioa erabiltzeko, ezinbestekoa da operadoreak zerbitzu hori eskaintzea, kontratuan aukera hori egotea eta parametro guztiak MMSak bidaltzeko konfiguratzeko (ikus 32. orrialdea).

### 5.1 Sarbidea




Menuetara hainbat modutara sar zaitezke:

- Sakatu  menu nagusiaren pantailara sartzeko, eta, ondoren, hautatu .
- Sartu tresna-barratik,  sakatuta.

### 5.2 Elkarrizketa-modua eta modu konbentzionala


Elkarrizketa-moduan txataren historia bistara dezakezu, ordena kronologikoan. Modu konbentzionalan, karpeta hauetara sar zaitezke: **Sarrerako ontzia, Irteerako ontzia, Bidalitakoak, SMS igorpen zelularra, Erantzungailua, Zirriborroak, Hutsik, Ereduak, Ezarpenak**, eta abar. Elkarrizketa-modua da lehenetsita dagoena. Modu konbentzionalera aldatzeko hauxe hautatu behar duzu: **“Aukerak|Ezarpenak|Elkarrizketa modua|Aktibatuta (Desaktibat.)”**. Ondorengo jarraibideak elkarrizketa-moduari dagozkionak dira.

### 5.3 Mezu bat sortzea

Sakatu  pantaila nagusiaren tresna-barran, edo hautatu **“Mezuak\ Idatzi mezua”** Zerrendan hartzaile bat baino gehiago erants ditzakezu. Hartzaile bat ezabatzeko, mugitu kurtsorea hartzailearen amaierara, eta, ondoren, sakatu  tekla. Sakatu  aurkibideko kontaktu bat hautatzeko.

Kasu hauetan, SMSak MMS bihurtuko dira automatikoki: irudi, bideo, audio, diapositiba edo bestelako fitxategiak eranstean, edo gaia, helbide elektronikoa bat edo 8 orri baino gehiagoko testua sartzean. Tenporizadorearekin bidaltzea

SMS/MMS bat zehaztutako orduan bidaltzeko programatu (hautatu **“Bidalketa- tenporizadorea”**  tekla sakatuta).

 Karaktere-kopuru jakin bat baino gehiago dituen SMSa (idazten ari zaren hizkuntzaren arabera da karaktere-kopurua) SMS bat baino gehiago izango balira bezala fakturatuko da. Argazkiak eta/edo soinuak dituen SMS mezua ere faktura daiteke mezu bat baino gehiago balira bezala.

### 5.4 Bilatu

Elkarrizketa bat bilatzeko, sakatu **“Bilatu”** eta, ondoren, sartu kontaktuaren izenaren lehen letra. Bilaketa hobetzeko, letra gehiago idatz ditzakezu.

### 5.5 Alarmak

#### 5.5.1 Mezuen doikuntzak

Aldi baterako mezuak gordetzea.

#### 5.5.2 Ahots-postontzia

Ahots-postontziaren zenbakia ikusi eta edita dezakezu.

#### 5.5.3 Sareko mezua

Jasotako hedapen SMSak gordetzeko balio du.

#### 5.5.4 WAP oharrak

WAP push mezuak gordetzea

### 5.6 Erabilgarri dauden aukerak

#### 5.6.1 Ikustea

Aukera honekin, hautatutako elkarrizketari buruzko informazioa ikus dezakezu.

#### 5.6.2 Ezabatzea

Elkarrizketa bat ezabatzeko (txataren historia duena), hautatu **“Aukerak\Ezabatu”** eta, ondoren, berretsi.

#### 5.6.3 Ezarpenak

#### Elkarrizketa-modua

Aukera honen bidez Elkarrizketa mezuak ikusteko modua aktibatu eta desaktibatu dezakezu.



## Testu-mezua

<b>Profilaren ezarpenak</b>	Perfilak SIM txarteletik zuzenean berreskura daitezke. Halaber, zure profila sortu dezakezu.
<b>Ezarpen komunak</b>	Entrega-txostena, entrega-txostenaren jakinarazpenaren eskaera aktibatua/ desaktibatua. Erantzuna (1) aukerak erantzuna erakusten du.
<b>Alfabeto-kudeaketa</b>	SMSak bidaltzeko SMSen datuen kodeketa zehazteko balio du.
<b>Memoriaren egoera</b>	Telefonoan behar adina memoria libre.
<b>Kokapen hobetsia</b>	Mezuak lehenespenez gordetzeko gunea hautatzeko balio du: SIMean edo telefonoan.
<b>Eramaile hobetsia</b>	Eramaile gogokoa

<sup>(1)</sup> Sare-operadorearen arabera.

## Multimedia-mezua

<b>Sortu</b>	Diapositiben abiadura, editatzeko modua, sinadura, irudiaren tamaina, eta abar konfiguratzeko balio du.
<b>Bidali</b>	Indarrean egongo den aldia, irakurri izanaren jakinarazpena eta abarren parametroak ezartzeko balio du.
<b>Berreskuratu</b>	Etxeko sarearen, roaming-sarearen eta abarren parametroak ezartzeko balio du.
<b>Aldatu profila</b>	Segi wap konexioa konfiguratzeko prozedura berbera.
<b>Memoriaren egoera</b>	Telefonoan behar adina memoria libre.

## Sare-mezuak <sup>(1)</sup>

<b>Jasotze modua</b>	Sare-mezuak jasotzeko aukera ematen du.
<b>Hizkuntzak</b>	Hizkuntzak hautatzeko aukera.
<b>Kanal-ezarpenak</b>	Kanalak hautatzeko/eransteko/ ezabatzeko.

### 5.6.4 Guztiak ezabatzea

Aukera honen bidez, elkarrizketa guztiak ezaba ditzakezu.

<sup>(1)</sup> Sare-operadorearen arabera.

## 6 Posta elektronikoa .....



Posta elektronikoko zerbitzu ezagun batzuetarako (Gmail, Windows Live, Yahoo, AOL...) konfigurazio lehenetsia du zure gailuak. Horrez gain, POP3 edo IMAP 4 posta elektronikoko kontuak ere konfiguratu ditzakezu.

### 6.1 Sarbidea

Sakatu  tresna-barra, menu nagusira sartzeko, eta hautatu “Posta elek.”.

### 6.2 Posta elektronikoko kontuak konfiguratzeko

#### Lehenetsitako posta elektronikoko zerbitzua

Zerbitzu lehenetsien kontu elektronikoko bat baduzu, zure telefonoan instala dezakezu zerbitzua (Gmail, Yahoo, eta abar), erabiltzaile-izena, pasahitza eta kontuaren izena sartuta; ondoren, berretsi, pantailako teklaturan “**Gorde**” sakatuta.

#### Posta elektronikoko berriaren zerbitzua

Lehenetsita duzun posta elektronikoko zerbitzuaz gain, beste kontu elektronikoko berri bat konfiguratzeko, sakatu “**Aukerak|Sortu posta-kontu elek.**” eta hautatu “**Beste posta-kontu elek.**”.

Zure helbide elektronikoa, erabiltzaile-izena, pasahitza eta kontuaren izena idazteko eskatuko dizu. Ondoren, berretsi aukera, pantailako teklaturan “**Gorde**” sakatuta. Ondoren, protokoloa <sup>(1)</sup> (POP3 edo IMAP4) eta sarea hautatu behar dituzu; hurrengo pausoan, sarrerako eta irteerako zerbitzarien helbidea sartu behar duzu. Azkenik, hautatu “**Gorde**”.

<sup>(1)</sup> Protokoloei buruzko informazio gehiago behar baduzu, kontsultatu posta elektronikoko zerbitzu-hornitzailearekin.

### 6.3 Mezu elektronikokoak idaztea

Hautatu “**Posta elek. |Aukerak|Idatzi posta elek.**” mezu elektronikoko idazteko interfazera sartzeko.

Hautatu  telefono-aurkibideko hartzaile bat gehitzeko.

### 6.4 Jasotako mezuek

Jasotako mezu elektronikoko guztiak ditu karpeta honek.

### 6.5 Bidali gabekak

Bidali gabeko mezu elektronikoko guztiak ditu karpeta honek.

### 6.6 Bidalitakoak

Bidalitako mezu elektronikoko guztiak ditu karpeta honek.

### 6.7 Zirriborroak

Mezu elektronikoen zirriborroak ditu karpeta honek.

## 6.8 Erabilgarri dauden aukerak

<b>Bidali eta jaso posta-kontu guztiak</b>	Mezuak jasotzeko/bidaltzeko kontu elektronikoko guztietara konektatzeko .
<b>Idatzi posta elek.</b>	Mezu elektronikoko berri bat idatzeko
<b>Editatu kontua</b>	Hautatutako kontuaren konfigurazioari buruzko informazio xehea editatzeko.
<b>Ezabatu kontua</b>	Une horretan hautatuta dagoen kontua ezabatzeko.
<b>Posta-kontu berria</b>	Posta elektronikoko kontu berri bat sortzeko.
<b>Hutsik</b>	“Jasotako mezuak/Ez bidalitakoak/Bidalitakoak/ Zirriborroak” ataletako mezu elektronikoko guztiak ezabatzeko.
<b>Dena hutsik</b>	Karpeta guztietako mezu elektronikoko guztiak ezabatzeko.
<b>Hautapena ezabatu</b>	Hautatutako karpetan markatutako mezuak ezabatzeko.
<b>Denak ezabatu</b>	Hautatutako karpetako mezu guztiak ezabatzeko.
<b>Hautatutakoak ezabatu</b>	Karpeta guztietan markatutako mezu elektronikoko guztiak ezabatzeko.

## 7 Palringo <sup>(1)</sup>



Palringo-ren bat-bateko mezularitzak aukera ematen dizu Palringo kontua duten lagunekin txateatzeko. Bat-bateko mezularitzako beste zerbitzu ezagun batzuetara ere konekta zaitezke Palringo-ren bidez (Yahoo, AIM, GG, ICQ, GTalk, iChat...).

Kontuan izan gerta daitekeela zerbitzuak zure bezero-bertsioaren arabera eguneratzea.

### 7.1 Sarbidea

Palringo-ra sartzeko, sakatu  menu nagusira sartzeko, eta hautatu .

### 7.2 Palringo kontu bat on line irekitzea

Zerbitzu hau aktibatu aurretik, Palringo kontu bat on line irekitzeko eskatuko dizu. Hauek dira horretarako bi moduak:

- Sakatu **“Menu”** eta, ondoren, **“Sign in”**.
- Horrez gain, kontu bat ireki dezakezu zuzenean, webgune honetan: <http://www.palringo.com/es/es/>.

### 7.3 Erregistratzea/Saioa ixtea

Palringoren berehalako mezularitzaren zerbitzarira konektatzeko, sakatu **“Menu”** eta, ondoren, hautatu **“Sign in”**. Palringoren kontuaren informazioa sartzeko eskatuko dizu: erabiltzaile-izena, helbide elektronikoa, pasahitza, saio-hasierako egoera, eta abar. Saioa amaitzeko, sakatu **“Menu”** eta, ondoren, **“Log out”**.

<sup>(1)</sup> Sare-operadorearen arabera.

## 7.4 Zerbitzu bat gehitzea

Hainbat zerbitzu erants daitezke (Yahoo, Google, ICQ eta abar) “Menua|Zerbitzua|Zerbitzua gehitu” aukeraren bidez.

## 7.5 Txat-a

Txata abiarazteko, hautatu lineako kontaktu bat, eta, ondoren, “Menua|Lagunak”.

Txateatzen ari zaren bitartean, ahots-mezuak eta argazkiak ere truka ditzakezu solaskideekin.

## 7.6 Kontaktuak

### Kontaktua eranstea

Kontaktu bat eransteako, sakatu “Menua” eta, ondoren, hautatu “Kontaktua sortu”.

Lehenengo hautatu behar duzu kontaktu berria zein zerbitzuri erantsi nahi diozun (adibidez, Yahoo). Ondoren, sartu kontaktuaren helbide elektronikoa.



Zure eskaera kontaktuari bidaliko zaio, hark onar dezan. Onartu ondoren, kontaktuaren izena eta egoera zure kontaktuaren zerrendan bistaratuko dira.

### Kontaktuak ezabatzea

Kontaktu bat ezabatzeko, hautatu kontaktua eta, ondoren, “Menua|Ezabatu kontaktua”.

Hautatutako kontaktua zerrendan ezabatuko da.

## 7.7 Taldeak

Menu honetan, besteak beste, aukera hauek dituzu: “Talde batera gehitu” edo “Talde berria sortu”.

Taldeko kide guztiekin aldi berean ibil zaitezke txatean.

# 8 Agenda



## 8.1 Agenda kontsultatzea

Agendan sartzeko, ukitu pantaila nagusiko tresna-barran edo hautatu “Kontaktuak” menu nagusian.

Kontaktuen zerrendan banaketa hau dago egina: **Gogokoa**, **Erakutsi gehien deitutakoa** eta **Kontaktu guztiak**.



Gogokoa



Gehien markatutako zenbakiak

### Kontaktuak bilatzea

Sakatu baldin eta kontaktuaren izenaren aurreneko letraren arabera bilatu nahi baduzu. Bilaketa hobetzeko, letra gehiago idatz ditzakezu. Edo mugitu gora edo behera, behar duzun kontaktuak bilatzeko, eta aurreneko letra hori duten kontaktuaren zerrendara iristen zarenean gelditu (A-Z).

### Kontaktu bat ikustea

Hautatu aurkibideko izen bat, kontaktuari buruzko informazioa ikusteko. Sakatu mezuak bidaltzeko; hautatu kontaktua editatzeko.

### vCard bat bidaltzea Bluetooth funtzioaren bidez

Nahi duzun vCard-a bidal dezakezu Bluetooth bidez, MMS bidez, posta elektronikoa bidez eta beste zenbait modutara, sakatuta.

## 8.2 Kontaktua eranstea

Kontaktu berri bat gehitu dezakezu  ukituta.

Aukibidean kontaktu berri bat sortzen duzunean, eremu hauek osa ditzakezu: izena, mugikorra, SIMera kopiatzea/SIMera ez kopiatzea, Etxea, Lana, Posta elektronikoa, Urtebetetze-eguna, urtebetetze-egunaren gogorazlea, URLa, helbidea, doinua, taldea.

Eremu batetik bestera pasatu zaitezke, gora eta behera mugituta, edo Bolumen-tekla erabilita.

### Urtebetetzea gogoraztea

Urtebetetzea gogoraztea finka dezakezu, kontaktuaren informazioa editatzean. Hala, gailuak urtebetetzearen eguna baino egun bat lehenago gogorazteko aukera ezar dezakezu. (Ikus 71. orrialdea).



Telefonoa atzerrian erabiltzen baduzu, gorde agendako zenbakiak nazioarteko formatua erabilita ("+"), atzetik herrialdearen kodea duela (ikus 22. orrialdea).

## 8.3 Erabilgarri dauden aukerak

Favorito, Números más llamados eta Todos los contactos aukeretatik aukera hauetara sar zaitezke:

<b>Bidali mezua</b>	SMSak, MMSak eta mezu elektronikoak bidal diezazkiokezu aurkibidean hautatutako kontaktuari.
<b>Gorde kontaktuetan</b>	Hautatutako taldeari mezuak bidal diezazkiokezu edo nahi dituzun taldeak sortu edo ezabatu ditzakezu.
<b>Ezabatu kontaktua</b>	Hautatutako kontaktua ezaba dezakezu.
<b>Taldea</b>	Telefonoan edo SIMean edo bietan gordetako kontaktuak ikustea hauta dezakezu.
<b>Ikuspegia</b>	Dei gehien egin dizkiozun zenbakia edo kontaktua bistaratu/ezkutatu dezakezu.
<b>Gehiago</b>	
<b>Nire zenbakia</b>	Zure zenbakia idatzi, aldatu edo SMS bidez bidal dezakezu.
<b>Memoriaren egoera</b>	Aurkibideak, SIMean eta telefonoaren memorian erabilita dagoen eta libre dagoen espazioa ikus dezakezu.
<b>Inportatu SIMetik</b>	Agenda osoa telefonora kopiatu dezakezu, nahiko memoria baldin badago.
<b>Esportatu SIMera</b>	Agenda osoa SIM txartelera kopiatu dezakezu, nahiko memoria baldin badago.

## 9 Deien erregistroa.....



### 9.1 Sarbidea

Funtzio honetara sar zaitezke menu nagusiko **“Deien erregistroa”** aukeratu, edo ☹️ sakatuta. Menuan sartzen zarenean, zerrenda hauek bistaratzen dira:

☒ Dei galduak

☒ Egindako deiak (berriro deitutakoak barne)

☒ Erantzundako/Ez onartutako deiak

### 9.2 Erabilgarri dauden aukerak

☒ sakatuta hauetara sar zaitezke: **Ezabatu, Bidali mezua, Gorde kontaktuetan, Editatu deitu aurretik**, eta abar.

#### 9.2.1 Nire zenbakiak

Sartu edo aldatu zure telefono-zenbakia edo zure ahots-postontzira sartzeko zenbakia, eta berretsi **“Eginda”** tekla sakatuta. Telefono-zenbakia SIM txartelean idatzita egoten da.

#### 9.2.2 Fakturazioa <sup>[1]</sup>

Aukeran dauden elementuetan, erabili aukera hau:

**Azken deiaren kostua/ Kostua guztira/ Gehienezko kostua/ Berrezarri kostua/ Prezioa unitateko** Fakturatuta deien guztizko kostua bistaratu, aldatu edo zeroan jar dezakezu, eta deiaren kostua nahi duzun dibisan sar dezakezu.

**Iraupena** Egindako dei guztien iraupen osoa ikusteko edo ezabatzeko.

**GPRS kontagailua** Kontsumitutako datuen bolumena kudeatzeko (kilobyteak).

**Iraupenaren bip abisua** Dei batean emititzen duen bip-a aktibatu edo desaktibatu dezakezu, zuk zehaztutako maiztasunarekin (sartu maiztasuna, eta berretsi pantailako teklatuan “✓” sakatuta).

#### 9.2.3 Deien doikuntzak <sup>[1]</sup>

Aukera horren bidez, hainbat aukeratan sar zaitezke:


##### Deia zain

Aktibatu/desaktibatu bigarren dei bat sartzean bip batez jakinarazteko aukera.

<sup>[1]</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

## Deia desbideratzea

Aktibatu/desaktibatu edo egiaztatu ahots-postontzirako deiak edo zenbaki jakinen deiak desbideratzearen egoera. Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

- Guztiak: dei guztiak sistematikoki desbideratzea.  ikonoa bistaratuko da.
- Baldintzapekoa: zure linea okupatuta dagoenean, erantzuten ez duzunean edo saretik kanpo zaudenean.

## Deien debekua

Aktibatu/desaktibatu irteerako eta sarrerako deien debekua. Zenbait aukera daude:

### Irteerakoak

Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

- **Dei guztiak** Edozein dei blokeatzen da.
- **Nazioarteko deiak** Nazioarteko deiak egiteko aukera blokeatzen da.
- **Nazioartekoak, Nazioarteko dei guztiak egiteko aukera etxera ezik** Nazioarteko dei guztiak egiteko aukera blokeatzen da, ordainketa egiten den herrialdera egiten direnak izan ezik.

### Sarrerakoak

Aukera hau kasu hauetan aplikatzen da:

- **Dei guztiak** Edozein dei blokeatzen da.
- **Roaming** Atzerrian egonez gero, ezin da deirik jaso.

### Utzi debeku guztiak

Deien blokeo guztiak desaktibatzen dira.

### Aldatu deien debekuen pasahitza

Jatorrizko pasahitza alda daiteke, dei debekatuen funtzioa aktibatuz.

## Nire zenbakia

CLIRa aktibatuzko edo desaktibatuzko.

### **Swap** <sup>(1)</sup>

1 lineatik 2 lineara aldatu.

### **Birmarkatze automatikoa**

Deitu eta erantzun ez duenari automatikoki berriz deitzeko aukera aktibatu edo desaktibatu dezakezu.

<sup>(1)</sup> Zure SIM txartelaren arabera.

## 10 Multimedia-aplikazioak.....



### 10.1 Musika

Funtzio horretara sartzeko, sakatu menu nagusia irekitzeko eta hautatu .

Zure mugikorreko eta zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu.

Musika-fitxategietara sartu ahal izango zara aukera hauetako baten bidez.

#### Abesti guztiak

Telefonoko memoriako eta memoria-txarteleko abesti guztiak ditu.

#### Gogokoan zerrenda

Zure abesti gogokoak sar ditzakezu **“Gogokoan zerrenda”** aukeran, pantailan sakatuta (gehienez 100).

#### Karpetak

Karpetako abestien kategoria.

#### Álbuma/Artista/ Generoa


Musika fitxategiak Albumaren, Artistaren edo Generoaren arabera sailkatzen dira, betiere, etiketetan gordetako informazioaren arabera.

#### Eguneratu abestiak

Informazio hori ez duten fitxategiak **“Fitxategi ezezaguna”** izenez sailkatuko dira.

Eguneratu telefonoan edo memoria-txartelean gordetako abestien informazioa.

### 10.1.1 Musika-irakurgailuaren modua





Bolumena doitzeko, erabili bolumen-tekla.



### 10.1.2 Ezarpenak

Aukera hauek erabil ditzakezu eskuineko funtzio-tekla sakatuta:

**Irakurketa modua** Aukera hauek ditu: Normala, Errepikatu, Errepikatu dena, Ausazkoa eta ausazko errepikapena. Pantailan  sakatuta ere personaliza dezakezu.

**Ekualizadorea** Telefonoan musika-estilo batzuk sartuta daude, nahi duzuna hauta dezazun. Pantailan  sakatuta ere personaliza dezakezu.

**Erreproduzitu Bluetooth bidez/ Erreproduzitu telefonoan eta Bluetooth bidez** Entzun musika Bluetooth-ean edo telefonoan eta Bluetooth gailu batean aldi berean.

**Bistaratu** Aukera ematen du erreproduzitaileak abestiari buruzko informazioa edo abestiaren hitzak erakusteko.

**Erreproduzioa** Musika parteka dezakezu, beste pertsonak maiztasun bera erabiltzen dutenean.

### 10.1.3 Hitzak irakurtzea





Musikarekin batera bistaratu daitezke hitzak.

### 10.2 Irudia




Telefonoko **“Nire sorkuntzak”** karpeta dauden irudiekin lotzen da liburategia, eta hainbat aukera ematen ditu: zerrendan, diapositiban edo miniaturan erakustea, pantailaren horma-irudi edo pantaila-babesle moduan ezartzeko, pizteko/itzaltzeko pantaila moduan ezartzeko, kontaktu baten IDan ezartzeko edo MMS bidez, posta elektronikoz edo Bluetooth bidez bidaltzeko.

Ikono erabilgarriak:

-  Pantailaren horma-irudi gisa ezartzea
-  Zerrenda gisa ikustea
-  Ezabatzea
-  Itzultzea

Ukitu behin irudiaren gainean, pantaila osoan ikusteko:



### 10.3 Bideoa



“Nire bideoak” albumak grabatutako, jasotako edo deskargatutako bideoak ditu. Karpeta horretako bideo guztiak erreproduzitu, kontaktu baten ID gisa jarri, bidali, ezabatu eta sailka ditzakezu. Teklajikono erabilgarriak:



Pantailaren Normala eta Osoa moduen artean aldatzeko



Erreproduzitu/geldialdi modu gisa ezartzeko



Bolumena doitzeko



Aurreko/hurrengo bideora pasatzeko



Aurreko menura itzultzeko

### 10.4 Irratia



Zure telefonoak RDS funtzioa duen irratia<sup>(1)</sup> du. Zure telefonoa irradi arunt gisa erabil dezakezu eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzen dituzun bitartean, irratia entzun dezakezu.

<sup>(1)</sup> Irratiaren kalitatea zauden eremuan kateak duen estalduraren araberakoa da.



Irratia erabili ahal izateko entzungailuak konektatu behar dituzu, antena gisa erabiltzeko balio baitute.

#### Erabilgarri dauden aukerak:

##### Gelditu

Irratia itzaltzeko.

##### Kanalen zerrenda

Gordetako irradi-kateen zerrenda irekitzeko

##### Bilaketa autom

Automatikoki bilatzen hasten da eta kateak automatikoki gordetzen dira “**Kanalen zerrenda**” aukeran.

##### Bilaketa eskuz

Maiztasuna eskuz sartzeko.

##### Kanala gorde

Une horretan sintonizatuta dagoen katea “**Kanalen zerrenda**” sartzeko.

##### Grabatu

Irratia grabatzeko; fitxategiak automatikoki gordetzen dira “**Oharrak**” aukeran.

##### Ezarpenak

Mugitu gora eta behera ezarpenak kudeatzeko.

##### Bozgorailua aktibatu/

##### Entzungailuan jo

Irratia bozgorailua edo entzungailuak erabilia entzuteko.

# 11 Internet <sup>(1)</sup>

## 11.1 Nire lagunak

Erabili webguneetako edukiak zure lagunekin harremanetan egoteko (Bebo, Friendster, Hi5, Myspace...).

## 11.2 Opera

Opera Minik Interneteko esperientzia osatua ematen dizu (zure lagunekin harremanetan zaude, informazioa eskuratzen duzu, bankuko eragiketak egin ditzakezu on line), eta, konprimitutako web-orriei esker, denbora aurrezteko diseinatuta dago.

## 11.3 Wap

### 11.3.1 Hasierako orria

Hautatu wap nabigatzailea aurrez definitutako profila duen hasierako orriarekin.

### 11.3.2 Gogokoak

Sartu zure web orri gogokoenetara.

### 11.3.3 URLra joatea

Idatzi wap gunearen URLa.

### 11.3.4 Ikusitako azken orriak

Azken aldian nabigatzen aritu zaren orriak.

### 11.3.5 Konexio gabeko orriak

Konexiorik gabe ikus daitezkeen orriak dira.

### 11.3.6 Oharren sarrera-postontzia

WAP push mezuak gordetzea

### 11.3.7 Ezarpenak

Nabigatzaileko zure lehentasunak pertsonaliza ditzakezu.

<sup>(1)</sup> Sare-operadorearen arabera. Baliteke zerbitzua ematean datu-fluxuaren sareak kostuak sortzea. Baliteke Roaming-ean kargu gehigarriak aplikatzea.

## 11.4 Albisteak



Gailu honek denbora aurrezten lagunduko dizu, eta webgune bateko eguneraketak erraz eskainiko dizkizu.

Kanal batean izena eman ondoren, zure mugikorreko RSS eduki guztia erregistratzeko eta kudeatzeko aukera emango dizu, edozein unetan eta edozein lekutan.

### Erabilgarri dauden aukerak:

<b>Ikusi</b>	Mezuaren izenburua edo URLa duen kanal baten mezuaren laburpena bistaratuko da.
<b>Eguneratu</b>	Kanal baten edukia eguneratzeko.
<b>Kanala sortu</b>	Izena eta URLa duen kanal berria sortzeko.
<b>Ezabatu</b>	Kanala ezabatzeko.
<b>Editatu</b>	Kanal baten izena edo URLa editatzeko.
<b>Eguneratu guztiak</b>	Kanal guztiak eguneratzeko.
<b>Ezarpenak</b>	Hautatu tarte erregular bat eguneraketak automatikoki berreskuratzeko, aukeratu irudiak bistaratzea nahi duzun ala ez eta WAP kontu batera konektatu nahi duzun.
<b>Gaitu/desgaitu eguneratze autom</b>	Kanal guztiak automatikoki egunera datezen aktibatzeko edo desaktibatzeko.

## 11.5 Eguraldia



Gogokoen dituzun hirietako eguraldiaren hiru iragarpen kontsultatzeko funtzio bat du telefonoak.

Hasierako pantailatik funtzio honetara sartzeko, sakatu tresna-barran, menu nagusira sartzeko, eta, ondoren hautatu .

Ukitu /mugitu ezkerrera edo eskuinera, hiria aldatzeko.

Ukitu **“AccuWeather.com”** webgunean sartzeko; baliteke kostu osagarriren bat kobratzea.

### Erabilgarri dauden aukerak:

<b>Informazio gehiago</b>	Linean eguraldiari buruzko informazio gehiago bilatzeko.
<b>Iragarpena</b>	Datozen hiru egunetako eguraldiaren iragarpena bistaratzeko.
<b>Eguneratzea</b>	Eguraldiari buruzko informazioa eguneratzeko.
<b>Nire hiriak</b>	Hiri guztiak zerrendatzeko, hiri berri bat eransteke, zure hiri gogokoa hautatzeko, hautatutako hiria ezabatzeko eta abar, <b>“Nire hiriak Aukerak”</b> aukeraren bidez.
<b>Ezarpenak</b>	Unitatea, eguneratzeko modua eta sarea ezartzeko.

## 11.6 Facebook

Pertsonak haien lagunekin, lankideekin, ikaskideekin edo inguruan bizi direnekin konektatzen ditu Facebook sare sozialak. Erabiltzaileek elkarrekin jarduteko aukera ematen duten funtzio batzuk eskaintzen ditu: Horma; gune horretan lagunek mezuak idatz ditzakete, erabiltzaileak irakur ditzan. Ukitu, erabiltzaileek “ukitu” birtual bat eman diezaioke. Opariak, hartzailearen profileen agertzen diren opari birtualak bidaltzeko; Market, erabiltzaileek saldu nahi dituzten objektuak doan bistaritzen dituen eremua, eta abar.

Kontu bat irekitzeko, bisitatu <http://www.facebook.com/>.

## 11.7 mTweet

Twitter sare soziala eta mikroblog-zerbitzua da; mundu osoan harrera beroa izan du eta oso ezaguna da. Mugikorren erabiltzaileek berriak eta ideiak argitara ditzakete mezuen edo “post”-en bidez. “Post”-ak egilearen profileko orrian agertzen dira, eta jarraitzaileei bidaltzen zaizkie.

Kontu bat irekitzeko, ikus: <http://twitter.com/>.

## 12 Aisia

### 12.1 Kronometroa

Kronometroa aplikazio arrunta da, denbora neurtzeko erabiltzen dena; hainbat emaitza gordetzeko eta neurketak eten eta berrabiarazteko aukera ematen du.

### 12.2 eBook

Liburutegi honek liburu elektronikoak ditu (.txt eta .pdb fitxategiak soilik). Irakurtzen ari zaren bitartean, aukera duzu markatzaileak gehitzeko edo hitz- edo esaldi-bilaketaren bidez zehaztutako testura iristeko (**Aukerak|Bilatu, Aukerak| Joan hona**).

**Erabilgarri dauden aukerak:**

<b>Ireki</b>	Uneko eBook-a irekitzen du.
<b>Liburuaren info.</b>	Liburuari buruzko informazio orokorra (izenburua, tamaina eta formatua) ematen du.
<b>Ezabatu</b>	Uneko liburu ezabatzen du.
<b>Guztiak ezabatu</b>	Liburu guztiak ezabatzen ditu.
<b>Sailkatu</b>	Liburuak izenaren, motaren, iraupenaren eta tamainaren arabera sailkatzen du.
<b>Ezarpenak</b>	Letra-tipoa, desplazamendu-modua, pantailaren formatua, biltegiratzea eta abar ezartzeko.
<b>Laguntza</b>	Lasterbidea guztien zerrenda.



Karaktereak hondatzea saihesteko, ziurtatu kodetze-formatua zuena dela (**Ezarpen orokorrak** edo **Ezarpenak** | **Kodifikazio-formatua**).

## 12.3 Java



### 12.3.1 Aplikazio bat hastea

Hautatu **“Java”** aplikazioak exekutatzeko.

### 12.3.2 Java doikuntzak

**“Java”** menuan Java parametroak kudeatu ditzakezu. Java audio-fitxategia eta Java bibratzea ezarri, zenbat toki geratzen den jakin eta dagoenak zenbat betetzen duen jakin dezakezu.

### 12.3.3 Java deskargak

Java™ aplikazioak deskarga ditzakezu **“Java”** menuan, **“aplikazioa deskargatu”** aukera hautatuta. Aplikazioak deskargatzeko Webgune gogokoan eta eskuragarrien zerrenda bistaratuko da.

Hautatu gogokoa, nahi den web-orrira joateko



Deskargatutako Java jokoak menu nagusian ezar daitezke sarbide bizkorra giteko.

### 12.3.4 Ziurtagiri fidagarriak

Telefonoarekin bateragarriak diren ziurtagiri fidagarrien informazio zehatza ikusteko.

#### Erantzukizunik eza

Aplikazioak deskargatzeak edo erabiltzeak ez du kaltetuko ez aldatuko telefono mugikorrean duzun softwarerik (Java®-rekin bateragarriak izateko diseinatuak). TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek ez dute ardurarik eta ez dute bermerik eskaintzen aplikazioen geroko erabilerari buruz edo gailua erostean instalatuta ez zeuden aplikazioei buruz. Eroslea da gailuaren edo aplikazioen/softwarearen galera edo kalteen eta, oro har, aipatutako aplikazioen/softwarearen erabilerak eragindako kalte eta ondorioen erantzulea. Aipatutako aplikazioak/softwarea edo gerora instalatutako funtzioen bat galtzen badira arrazoi teknikoengatik, gailua aldatzeagatik/ konpontzeagatik, telefono mugikorraren jabeak eragiketa errepikatu behar du eta deskarga edo konfigurazioa berriz egin. TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek ez dute eskaintzen bermerik eta ez dute erantzukizunik eragiketa gasturik sortu gabe errepikatu ezin bada edo burutu ezin bada.

## 13 Kamera



Zure mugikorrak kamera du, eta harekin argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, eta haiekin hainbat gauza egin:

- **“Fitxategiak\Nire sorkuntzak”** karpeta gorde.
- Multimedia-mezu batean (MMS) bidali beste mugikor batera edo helbide elektronikoa batera.
- Zuzenean posta elektronikoz edo Bluetooth bidez bidali.
- Pantaila nagusia personalizatuta (ikus 75. orrialdea).
- Direktorioko kontaktu bati sarrerako irudi gisa esleitu.
- Datu-kable bidez edo microSD txartel bidez ordenagailura transferitu.

### 13.1 Sarbidea

Hasierako pantailatik funtzio honetara sartzeko, sakatu tresna-barran, menu nagusira sartzeko, eta, ondoren hautatu ikonoa.

### 13.2 Kamera

#### 13.2.1 Argazki bat nola atera, gorde edo ezabatu

Pantailak bisorearen funtzioa egiten du. Fokatu objektua edo paisaia bisorean eta sakatu edo ukitu pantailaren edozein puntu, ezkerreko eta beheko barra izan ezik, argazkia egiteko. Hala, irudiak automatikoki gordeko dira. Ez baduzu gorde nahi, zuzenean ezaba dezakezu ukituta.

#### 13.2.2 Doikuntzak fokatze-moduan

Argazkia egin aurretik, doikuntza batzuk egin ditzakezu lasterbide hauek erabiliz:

Argazkiak ateratzeko pantailatik, sakatu hauetara sartzeko: **“Tamaina”, “Ateratze modua”, “Kalitatea”, “Tenporizadorea”, “Gaua”, “EU”, “Kolorea”, “Non gorde”**.

Sakatu **Nire sorkuntzak** atalera sartu eta egindako argazkiak bistaratzeko.

Irudiaren tamaina

Tenporizadorea

Kolorearen modua

Argazkia ateratzeko modua

Gauako modua

Nire sorkuntzak

Kalitatea

Esposizio-balioa

Gorde kokapena

#### 13.2.3 Argazkia atera ondorengo aukerak


Argazkia ateratzean, bost ikono agertuko dira argazkiaren gainean, argazkia Bluetooth, MMS eta posta elektronikoz bidaltzeko, kontaktu bati esleitzeko edo pantaila-hondo gisa ezartzeko.

### 13.3 Bideoak


Iraupen mugagabeko bideoak graba ditzakezu, bateria eta memoria nahikoa daogoen bitartean.

Arren gomendatzen dizugu aurrez definitutako karpeta **“Memoria-txartelera”** aldatzea, egiten dituzun argazkiak eta bideoak gordetzeko.

### 13.3.1 Enkoadratze-modua

“Bideoa” funtzioan sartzean, enkoadratze-moduan zaude. Erabili mugikorraren pantaila bisore moduan, eta sakatu  **Ateratze modua, Kalitatea, Gaua, Soinua grabatu, Kolore modua, EU** eta **Non gorde** aukeren doikuntzetarako eta “Fitxategiak/Nire bideoak” atalera sartzeko.

### 13.3.2 Grabatze-modua

Doikuntzak hautatu ondoren, zure bideoklipa grabatzen has zaitezke  pantailaren edozein puntu ukituta, ezkerreko eta beheko barra izan ezik.



Grabatze-moduan duzun bitartean dei bat jasotzen baduzu, bideoaren grabazioa eten egingo da eta gorde nahi duzun galdetuko dizu.

### 13.3.3 Bideoa grabatu ondoren egin daitezkeen bestelako operazioak

Bideo bat grabatzean, pantailan hiru ikono agertuko dira bideoa posta elektronikoz, MMS bidez edo Bluetooth bidez bidaltzeko.

“Nire bideoak” zerrendan, sakatu “Aukerak” bideoa erreproduzitzeko, kontaktuaren ID gisa ezartzeko, izena aldatzeko eta abar.

## 14 Profilak



Menu honen bidez gertaera eta inguru bakoitzaren dei-tonuak pertsonaliza ditzakezu.


### 14.1 Orokorra

Edozein profilen soinu-doikuntzak aldatzeko, sakatu “Aukerak” eta hautatu “Editatu”. Funtzio hauek ikusiko dituzu, gorantz edo beherantz mugituta edo bolumenaren tekla erabilita:

#### Tonua

Hautatu zerrendako melodia bat, bolumenaren tekla gorantz edo beherantz mugitzeko, eta berresteko, sakatu “Aukerak/Hautatu” (ikus 46. orrialdea).

#### Modua

Telefonoaren soinuaren moduan aukera hauek dituzu: Normal, Discreto (bip batzuen ondoren, txirrina), Bibrazioa (soinu guztien ordeztu bibragailuak jotzen du), bibratzea + soinua, bibratzea eta gero soinua, Bip + bibratzea, Isilik (alarmen kasuan bakarrik dago soinua,  ikonoa bistaritzen da).

#### Bolumena

Doitu bolumena bolumen-teklarekin.

#### Bip-teklak

Aukeratu teklen tonu-mota.

#### Mezuan bip-a

Hautatu mezu berriei dagokien doinua.

#### Pizteko bip-a

Hautatu telefonoa pizteko tonua.

#### Itzaltzeko bip-a

Hautatu telefonoa itzaltzeko tonua.



## 14.2 Bilera

Aukera hori hautatua dagoenean, telefonoak ez du soinurik igortzen, baldin eta alarmaren bat konfiguraturata ez badago. Gertakari berri bakoitzarekin bibratu egingo du.

## 14.3 Kanpoan

Txirrinaren bolumen altuagoa behar duten kanpoko eremuetarako diseinatutako profila da.

## 14.4 Barruan

Bip-aren eta melodiaren bolumena Normala moduarenak baino apalagoak izango dira.

## 14.5 Isilik

Profil honekin, melodia guztiak desaktibatuko dira, baita jakinarazpen-soinuak ere.

## 14.6 Hegaldiko modua

Debekatuta daude ahots-deiak, Bluetooth-a eta mezuak. Standby-aren iraupena handitzeko erabil daiteke.

## 15 Fitxategiak kudeatzea .....



Telefonoan edo memoria-txartelean Gestión de Archivos karpetan jasotako audio- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke. Atzealdean dauden bi ikonoek adieraziko dute fitxategi bakoitza non gorde daitekeen:

 Telefonoan gordeta

 Memoria-txartelean gordeta

### 15.1 Nere soinuak

Hautatu soinu-fitxategi bat sarrerako deien tonurako, bip bat mezuen jakinarazpenerako, pizteko/itxaltzeko tonurako, kontaktuen IDen tonurako edo jakinarazpen-bip bat alarmarako eta hitzorduetarako.

“Nire audio fitxategiak” albumak karpeta hauek ditu <sup>[1]</sup>:

- Música: gaien hautaketa osoa
- Melodías: dei-tonu gisa ezar daitezkeen melodiak
- Grabaciones: grabatutako soinu guztiak,
- General: telefonoan edo memoria-txartelean gordetako audio-fitxategi guztiak ditu.



DRM: soinuak eta irudiak hedatzeko aukera ematen duen eta horiei lotutako copyright-a babesten duen eskubide digitalen administrazioa. DRM kontagailuan oinarritutako fitxategiak eta eskubideak iraungita dituzten fitxategiak ez dira automatikoki erreproduzitu zerrenda zabaldutakoan.

<sup>[1]</sup> Karpetan izenak ezin dira aldatu. Baina, kasu batzuetan, karpeta hauetako elementu batzuk alda, ezaba eta gehitu ditzakezu.

## 15.2 Nire irudiak

Irudi edo argazki bat hauta dezakezu paintailaren hondorako, pizte/ itzaltze pantailarako edo agendako kontaktu bati esleitzeko.



Irudiak alfabetikoki agertuko dira.

## 15.3 Nire bideoak

“Nire bideoak” albumak grabatutako, jasotako edo deskargatutako bideoak ditu.

## 15.4 eBook

Liburutegi honek liburu elektronikoak ditu (.txt eta .pdb fitxategiak soilik).

## 15.5 Nere sorkuntzak

Mugikorrean erregistratutako argazki guztiak gordetzen ditu funtzio honek.

## 15.6 Beste fitxategi batzuk

Karpeta batean daude deskargatutako Java aplikazio guztiak.

## 15.7 Telefonoa

Sarbidē-puntu bat telefonoan gordetako karpetetako fitxategi guztietarako.


## 15.8 Memoria-txartela

Memoria-txartelean gordetako fitxategi guztietara sar zaitezke.



Lehenengo aldiz memoria-txartel bat sartzean, arakatu egingo du, eta aurrez definitutako karpetak sortuko dira.

### Memoria-txartela sartzea:



MicroSD txartelaren euskarria irekitzeko, lerratu geziaren norabidean eta altxa ezazu. Sartu microSD txartela urre-koloreko kontaktuak behera begira dituela. Azkenik, jaitsi berriro txartelaren euskarria, eta lerratu kontrako norabidean ixteko.

### Erabilgarri dauden aukerak

Ireki	Karpeta bat irekitzea
Karpeta sortu	Karpeta gehiago sortzeko.
Ezabatu karpeta	Karpetak ezabatzeko
Karpetaren izena aldatu	Karpetaren izena editatzeko.
Karpeta hutsitu	Karpeta bateko fitxategi guztiak ezabatzeko.
Memoria-txartela	Formateatzeko edo memoriaren egoera zein den jakiteko.

## 15.9 Audio-fitxategiak, argazkiak, bideoak eta abar kudeatzea

Hautatutako elementuaren arabera, funtzio hauetan sartuko zara:

<b>Ikusi</b>	Hautatutako irudia ikus dezakezu.
<b>Entzun</b>	Hautatutako audio- eta bideo-fitxategiak erreproduzitzeko.
<b>Bidali <sup>[1]</sup></b>	Audio-fitxategiak/irudiak/bideoak/Java bidaltzeko.
<b>Ezabatu</b>	Hautatutako audioa/irudia/bideoa ezabatzeko (ez zaie aplikatzen telefonoak berarekin dakartzan elementuei).
<b>Ezarri honela:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irudia → pantaila-hondoa, pizte/jitzalte-pantaila edo kontaktu bati esleitzeko.</li><li>• Soinua → doinua, mezua bip-a, piztu/jitzali, kontaktu bati esleitu.</li></ul>
<b>Hautatu/Kendu hautapena</b>	Klik batez fitxategi bat hautapena atalerako markatzeko/desmarkatzeko, eragiketa gehiago egin ahal izateko. Sakatu <b>“Guztiak markatu”</b> Markatu menuan, guztiak zuzenean markatzeko.
<b>Deskargatu</b>	Elementu berriak deskargatzeko.
<b>Aldatu izena</b>	Audioa/irudia/bideoaren izena aldatzeko.
<b>Ordenatu</b>	Fitxategiak izenaren, motaren, iraupenaren eta tamainaren arabera sailkatzeko.
<b>Mugitu telefonora/ mugitu memoria-txartelera</b>	Fitxategi bat gailuaren memoriatik memoria-txartel batera eta alderantziz eramateko.
<b>Instalatu</b>	Deskargatutako Java aplikazioak instalatzea.
<b>Propietateak</b>	MP3 fitxategi bateko ID3 fitxaren edukia zati bat bistaratzeko.

<sup>[1]</sup>  marka duten fitxategiak ezin dira bidali.

## Aktiibatu

DRM fitxategiaren aukera..

## Kopiatu telefonora/ mugitu memoria-txartelera

Fitxategia telefonoaren memorian edo memoria-txartelean kopiatzeko.

## 15.10 Formatuak eta bateragarritasuna <sup>[1]</sup>

- Soinuak: mp3, m4a, aac, midi, wav, amr, wma
- Irudiak: jpg, gif
- Bideoak: 3gp, mp4

## 15.11 Memoriaren egoera

Telefonoan eta memoria-txartelean (erabiliz gero) erabiltzen ari den espazioa eta libre dagoena adierazten ditu.

### 15.11.1 Telefonoa

Libre dagoen memoria ikustea.

Telefonoaren memoria hainbat funtziotarako erabiltzen da: agenda, calendario, mensajes, imágenes, melodías, juegos y vídeos.

### 15.11.2 Memoria-txartela (MicroSD txartela)

Ikusi zure miniSD txartelean duzun lekua.

Fitxategi handiak (bideoak, abestiak eta abar) MicroSD txartelean gordetzea gomendatzen dugu.

<sup>[1]</sup> Produktuaren eta operadorearen arabera.

## 16 Bluetooth™ (1)



Erabil ditzakezun funtzioak

Funtzio honetara sartzeko,  tekla sakatu behar duzu menu nagusira sartzeko, eta, ondoren, **“Bluetooth”** hautatu behar duzu. Zure telefonoa Bluetooth aparatu batekin erabiltzeko, jarraitu urrats hauei:

- Sinkronizatu eta erregistratu aparatua zure telefonoan.
- Hautatu esku askeko moduan erabiltzeko. Bluetooth audio-gailu bakarra (zure Bluetooth esku askeko eramangarria edo autoko Bluetooth kita) konekta daiteke komunikazioan.

### Bluetooth aparatua sinkronizatzea eta erregistratzea

Bluetooth funtzioa aktibatzeko, hautatu **“Bluetooth|Aktibatu”** aukera. Ondoren, sartu **“Gailuen zerrenda”** menuan, konekta daitezkeen Bluetooth aparatuek bilatzeko, eta hautatu zerrendan sinkronizatu nahi duzun aparatua. Bluetooth gailuak teklaturik ez badu, sartu lehenetsitako pasahitza zure telefonoan erregistratzeko. Teklatua badu, pasahitz berdina sartu behar duzu telefonoan eta gailuan, azken hori erregistratzeko.


Zerrendan, hautatu **“Aukerak”** tekla konektatzeko/deskonektatzeko, berriz izendatzeko, aparatu berriak bilatzeko edo zerrendatik aparatu ezezagun bat ezabatzeko.

 Gogoan izan Bluetooth gailua eta sinkronizazio-modua aktibatu behar dituzula, telefonoarekin sinkronizatzean.

<sup>1)</sup> OT-710rekin bateragarriak diren Bluetooth Alcatel OT-BM82 (mono) entzungailuak erabiltzea gomendatzen dizugu.

## Erabil ditzakezun funtzioak

<b>Datuak transmititu</b>	Beste bluetooth gailu batekin fitxategiak trukatzea.
<b>Jaso/egin deiak</b>	Esku askeko Bluetooth eramangarri batekin telefono-dei bat egitea edo jasotzea.
<b>Musika entzun</b>	A2DP profilarekin bateragarria.
<b>PBAP</b>	Kontaktuko agendara eta deien memoriara erraz erraz sartzeko balio du. Ibilgailuko-kitarekin edo esku libreko Bluetooth eramailaiguarekin erabil daiteke, PBAPrekin bateragarria bada.
<b>Ezarpenak</b>	<b>Ikuspena</b> Aukeratu zure telefonoa ezkutatuta ( <b>“Ezkutatuta”</b> ) edo guztiak ikusteko moduan ( <b>“Ikusgai”</b> ) utzi nahi duzun. <b>Nire telefonoaren izena</b> Gainerakoek ikusiko duten zure telefonoaren izena aldatzeko.

 Aktibatu beti Bluetooth-a zure telefonoan Bluetooth aparatu batera konektatu aurretik. Ez ahaztu Bluetooth-a aktibatzeak bateriaren iraupena aldatuko duela pixka bat.

Bluetooth teknologiarik esker, eremu txiki bateko Bluetooth aparatu guztiak konekta daitezke haririk gabe. Egiatzatu esku askeko Bluetooth eramangarria edo autoko Bluetooth kita estaldura horren barruan daudela, eta **“Ikusgai”** aktibatuta dagoela. Zure telefonoa bateragarria da Bluetooth® 1.1, 1.2 eta 2.0 bertsioekin.

## 17 Besteak



### 17.1 Egutegia

Funtzio horretara sartzeko, sakatu  menu nagusia irekitzeko, eta, ondoren, hautatu . Hilabeteko egutegia aurkituko duzu, bilera garrantzitsuak, hitzorduak eta abar gogorarazteko. Ekintza bat sartuta duten egunak kolorez markatuko dira.

#### Erabilgarri dauden aukerak:

<b>Ikusi gaurko hitzorduak</b>	Eguneko hitzorduak ikusteko.
<b>Hitzorduen zerrenda</b>	Ikusi sortutako hitzordu guztiak.
<b>Joan data</b>	Sartu nahi duzun data, eta berehala nabarmenduko da.
<b>Sortu</b>	Hitzordu bat sortu.
<b>Sinkronizazioa</b>	Ezarritako kontuarekin sinkronizatzea.

### 17.2 Kalkulagailua

Funtzio honetara sartzeko, hautatu "Kalkulag." menu nagusian. Sartu zenbaki bat, hautatu egin beharreko operazioa eta bigarren zenbakia sartu. Ondoren, sakatu "=" emaitza bistaratzeko. Operazioa amaitu ondoren,  hauta dezakezu zenbakiak ezabatu eta beste operazio bat egiteko. Sakatu  pantaila nagusira itzultzeko.

### 17.3 Oharrak

Testu-formatua edo ahots-formatua duen ohar bat sor dezakezu menu nagusiko "Oharrak" aukeran.

#### Erabilgarri dauden aukerak:

<b>Ireki</b>	Ohar bat ireki eta ikusteko.
<b>Bidali</b>	SMS, MMS, posta elektronikoz edo Bluetooth bidez bidaltzeko.
<b>Testu ohar berria/ Ahots-ohar berria</b>	Testu-ohar edo ahots-ohar berri bat gehitzeko.
<b>Ezabatu</b>	Oharrak ezabatzeko aukera ematen du. Ohar guztiak ezabatzeko.
<b>Ezabatu guztiak</b>	Ahots-ohar bat grabatzean, soinu-formatua zehaztu dezakezu (AMR, WAV edo AAWB), kalitatea (handia/txikia) eta gordetzeko tokia (telefonoa, memoria-txartela).

### 17.4 Zereginak

Zereginak kudeatzeko eta zereginen egoera erregistratzeko aukera ematen dizu, eta lehentasunak ez ditzakezu. Aurreikusten den dataren arabera sailkatzen dira zereginak.

#### Erabilgarri dauden aukerak:

<b>Ikusi</b>	Uneko zeregina ikusteko balio du.
<b>Sortu</b>	Zeregin berri bat gehitzeko aukera ematen du.
<b>Ezabatu</b>	Uneko zeregina ezabatzeko balio du.
<b>Markatu eginda gisa/ Markatu egin gabeko gisa</b>	Zereginaren egoera aldatzeko aukera ematen du.

## 17.5 Erlojua



### 17.5.1 Alarma

Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta berriz jotzeko funtzioa dauka. Bost alarma konfiguratu dezakezu, eta berriz jotzea nahi duzun edo ez aukeratu.

<b>Errepikatu</b>	<b>Behin</b> (balio lehenetsia)/ <b>Egunero</b> / <b>Lanegunak</b> hauta dezakezu, edo nahi bezala pertsonalizatu.
<b>Errepikapena</b>	Alarmak berriz joko du denbora-tarte jakinetan.
<b>Modua</b>	Dei-tonuaren modua hauta dezakezu: <b>Tonua</b> , <b>Dardara soilik</b> , <b>Irratia</b> <sup>(1)</sup> edo <b>Dardara eta tonua</b> .

### 17.5.2 Munduko erlojua

Munduko erlojuak hainbat hiritako ordua eta ordu-zona erakusten du. Gehienez, hiru hiri ikus daitezke aldi berean (**Aukerak** | **Gehitu** | **Nire hiriak**).

### 17.5.3 Erlojua

Eguna eta ordua doitu ditzakezu, 12/24 orduko formatua kontuan hartuta.

Udako ordutegiaren doikuntza ere finkatu dezakezu.

<sup>(1)</sup> Radio moduan, entzungailua konektatu behar duzu lehendabizi. Telefonoa automatikoki piztuko da irratia konektatu aurretik.

## 17.6 Bihurgailua



### 17.6.1 Unitate-bihurgailua

Pisu- eta luzera-aldatzailea erabil dezakezu, ◀ ▶ teklekin aldatu nahi duzun unitatea aukeraturik. Gero, sakatu zifrak sartzeko. Azkenik, itzul zaitez unitate-bihurgailuaren emaitzaren pantailara.

### 17.6.2 Moneta-bihurgailua

Moneta-bihurgailuarekin, funtzio hauek egin ditzakezu:

- Moneta bat zuzenean euro bihurtu, eta alderantziz<sup>(1)</sup>.
- nazioarteko monetak aldatu. Bi monetak ◀ ▶ sakatuta hautatu beharko dira. Dagokion aldaketa sartzeko eskatuko zaizu.

<sup>(1)</sup> Europako moneta zaharrentzat, moneta-aldatzaileak 1998/12/31n ezarritako eurotarako aldaketak hartzen ditu, zeinak aldatze-arau ofizialen arabera erabiltzen baitira.

## 18 Doikuntzak



Hasierako pantailatik, aukeratu  menuko ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko:

### 18.1 Telefonoaren doikuntzak

#### 18.1.1 Pantaila

##### Horma-papera

Horma-papera agertuko da telefonoa piztean.

“Horma-papera” aukeratzen duzunean, pertsonalizatu egin dezakezu zure telefonoan lehenespenez agertzen den irudia edo animazioa aldatuta.

##### Pantaila-babesa

Aukera hori aktibatuta, pantaila-babesa bistaratzen da horma-paperaren ondoren. Hautatu irudi, animazio edo diapositiba bat pantaila-babes gisa.

##### Gaia

Funtzio horren bidez, telefonoaren estilo grafikoa eta kolorea pertsonaliza ditzakezu.

##### Pizteko irudia/Itzaltzeko irudia <sup>[1]</sup>

Telefonoa piztean bistaratzen diren ongietorriko mezua, animazioa edo irudia pertsonaliza ditzakezu.

Telefonoa itzaltzeko pantaila ere pertsonaliza dezakezu, irudi bat edo animazio bat hautatuta.

<sup>[1]</sup> Modeloaren arabera.

##### Distira

LCD pantailaren argitasuna doitu dezakezu ... tekla sakatuta.

##### Luz de fondo

- Pantaila Distira murriztu dezakezu bateriak hobeto funtzionatzeko eta energia aurrezteko, denbora-tarte jakin bat jarduerarik gabe zaudenean.
- Teklatua Teklatuaren hondoko argia pertsonaliza dezakezu **Aktibatuta/Desaktibatuta** hautatuta, edo nahi den iraupena sar daiteke zuzenean.

#### 18.1.2 Hizkuntzak <sup>[1]</sup>

Mezuak bistartzeko hizkuntza (aukeratu  teklarekin).

“Automatikoa” aukerarekin, abonatuta zauden sareko hizkuntza hautatzen da (zure telefonoan hizkuntza hori erabilgarri badago).

#### 18.1.3 Entzungailua

Soinua (sarrerako deiak, mezuen bip-a, alarmaren bip-a)

**Entzungailua soilik** eta **Telefonoa eta entzungailua** artean aldatzeko.

<sup>[1]</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

### 18.1.4 Ukipen-pantailako doikuntzak


**Ukipen-pantailaren kalibrazioa** Ukipen-pantaila kalibratzeko, ukitu pantailaren edozein puntu eta kalibraketa martxan jarriko da.

**Ukipen-dardara** “Aktibatuta” egoeran dagoenean, telefonoak dar-dar egingo du pantaila ukitzean.

### 18.1.5 Zenbaki-teklak

Teklak pertsonalizatzeko funtzioari esker, hasierako pantailatik funtzioetara sar zaitezke.

### 18.1.6 Automatikoki blokeatzea

Teklatua automatikoki blokeatuko da. Eskuz ere blokea dezakezu hasierako pantailako  tekla arin sakatuta.

### Desblokeatu teklatura

Teklatua desblokeatzeko, blokeatutako pantailan ezkererantz edo eskuinerantz arrastatu behar duzu.



Teklatua automatikoki desblokeatuko da dei bat jasotzean edo kargagailua konektatzean.

### 18.1.7 Dei batean pantaila blokeatzea

Dei batean pantailaren blokeoa aktibatzeko/desaktibatzeko, hautatu “Aktibatuta”/“Desaktibatuta”.

### 18.1.8 Testua idazteko modua <sup>[1]</sup>

Kontsultatu “Testua sartzeko modua” kapitulua, 81. orrialdean. Karaktere berezien taulaz gain (adibidez, zirilikoa, txinera), telefonoan testua idazteko hainbat modu dituzu. Funtzio honi esker, mezu laburrak idatz ditzakezu eta izenak sar ditzakezu karaktere bereziekin zure agendan.

<sup>[1]</sup> Sare-operadorearen arabera.

## 18.2 Deien doikuntzak

Ikus 42. orrialdea.

## 18.3 Segurtasuna

**SIM blokeoa** Kodea aktibatuta badago, SIM txartelaren babes-kodea eskatuko zaizu telefonoa pizten duzun bakoitzean.

**PIN** PINa aldatzeko.

**PIN2** Funtzioa aktibatuta badago, babes-kode bat beharko duzu SIM txartelaren ezaugarri jakinetara sartzeko (fakturazioa/kostua/markaketa finkoko zenbakiak eta abar). Hau hautatu, berri batekin ordezkatzeko (4 eta 8 digitu artean).

**Telefonoaren kodea** Telefonoa pizten duzun bakoitzean kodea eskatuko dizu.

**Aldatu pasahitza** Telefonoaren pasahitza aldatzeko; aurrez ezarritakoa 1234 da.

**Markatze finkoa (FDN)** Telefonoa “blokeatzeko” aukera ematen du, zenbaki batzuk soilik edo aurrezenbaki jakinen bat duten zenbakiak soilik markatu ahal izan daitezen. Funtzio hori aktibatzeko, PIN2 kodea eskatuko da.



## 18.4 Sareak

### Hautatu sarea

<b>Gogoko sareak</b>	Konektatzea nahi duzun sareen zerrenda, lehenetsun-ordenean.
<b>Hautatu sarea</b>	Sarea erabiltzaileak aukeratzen du.
<b>Bilaketa modua</b>	“Eskuz” eta “Automatikoak” bilaketa-moduen artean aldatzeko.
<b>GPRS konexioa <sup>(1)</sup></b>	
<b>Beharrezkoa denean</b>	GPRS modu aktiboa konexio-baldintzen arabera.
<b>Beti</b>	GPRS modu aktiboa etengabe.
<b>GPRS nazioarteko ibiltaritzan</b>	Atzerrian erabil ditzakezu GPRS datuen zerbitzuak.

## 18.5 Konektagarritasuna

Profilaren doikuntzen multzoa mezueterako (MMS, posta elektronikoa...) eta web-konexiorako.

<sup>(1)</sup> Sarearen erabilgarritasunaren arabera.

# 19 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari .....

## 19.1 PC programa-paketea

Web orritik, programen bertsio berriak deskargatu ahal izango dituzu doan. Programa-paketea hauek sartzen dira:

- **Segurtasun-kopiak egitea/leheneratzea**  
Mugikorreko informazio garrantzitsuen segurtasun-kopiak egin eta nahi denean leheneratu ahal izango duzu.
- **GPRS modema**  
Erabili telefonoa PCa Internetera konektatzeko.
- **Multimedia pertsonalizatzea**  
Pertsonalizatu telefono mugikorra, soinuekin, melodiekin, irudiekin eta animazioekin
- **Mezularitza**  
Zure ordenagailuan SMS/MMSak idatzi ditzakezu erraz eta mugikorrera transferitu.

### Sistema eragile bateragarria

Windows 2000/XP/Vista/Windows 7.

## 19.2 Webcam <sup>(1)</sup>

Telefonoa webcam moduan erabil dezakezu ordenagailuko bat-bateko mezularitzarako.

- Konektatu zure telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez.
- Joan ordenagailuaren “**Kontrol-panela**” atalera eta bilatu USB bideo-gailuak (Eskanerrak eta kamerak atalean).

<sup>(1)</sup> Webcam-aren funtzionamendua aldatu egin daiteke ordenagailuaren sistema eragilearen arabera.

## 20 Testua idazteko modua / Karaktereen taula.....

Mezuak idazteko bi idazketa-metodo daude:

- Arrunta
- Prediktiboa, eZi moduarekin:

### Arrunta


Modu honekin, letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko.

### Prediktiboa, eZi moduarekin






Modu honekin azkarrago idatz daiteke testua.

Sakatu teklak banan-banan; hitza aldatu egingo da tekla bat sakatzen duzun bakoitzean. Idazten ari zarela, hitza aldatu egingo da.

### Ukitu, testua idazteko




☞ Txandakatu teklatuak, eskuinetik ezkerreara arraztatuta. ☞

-  Sartu sinbolora eta zenbakien taulara
-  Aldatu testua idazteko metodoa
-  Aldatu hauen artean: abc|Abc|ABC
  - Sakatu banan-banan ezabatzeko
  - Luze sakatu dena ezabatzeko
-  Konfirmatu aukera bat  
Pasa hurrengo lerrora (SMS/posta elektronikoa/MI mezuetan)
-  Itxi teklatura

## Zenbakien eta ikurren taula

Sakatu  tekla zenbakien eta ikurren taula irekitzeko; sakatu  aurpegierak bistaratzeko <sup>(1)</sup>.



<sup>(1)</sup> Ikonoak testu bihurtuko dira automatikoki.

## 21 Telefonoaren bermea .....

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako<sup>(1)</sup>, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, lmei-a, data eta saltzailea.

Erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu telefonoak, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin daiteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoï hauengatik dituzten akatsak:

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio aginduak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.

<sup>(1)</sup> Erabilerearen eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriarene iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango du errendimendurik onena zure telefonoak.

- 2) TCT Mobile Limited-ek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.
- 4) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Ez dugu telefonoa konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egotzen ez badigu.

Herialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearren aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS

Immeuble Le Capitole

Parc des Fontaines

55, avenue des Champs Pierreux

92000 Nanterre

France

## 22 Osagarriak <sup>(1)</sup>

Alcatelen GSM telefono mugikorren azken belaunaldiak “esku libreko funtzioa” du banean, telefonoa distantzia jakin batetik erabili ahal izateko, adibidez, mahai baten gainean dagoenean. Zure elkarrizketak konfidentzialak izan daitezen, entzungailu edo esku libreko eramangarri bat ere badu.



Kargagailu estandarra



Erresuma Baturako kargagailua



Bateria



USB Kablea



Entzungailu esteroea




Zure modeloarekin bateragarriak diren Alcatel bateriekin, kargagailuekin eta osagarriekin bakarrik erabili behar duzu telefonoa.

<sup>(1)</sup> Erreferentziazko irudiak dira.


## 23 Arazoak eta irtenbideak.....

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, gomendio hauei begiratzea gomendatzen dizugu:

- Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.
- Bateria optimizatzeke, erabat kargatzea gomendatzen dizugu .
- Telefonoak hobeto funtziona dezan, telefonoaren memorian datu gehiegi ez gordetzea gomendatzen dizugu.

Gainera, puntu hauek egiaztatzea komeni da:

### Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu  tekla pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

### Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu  tekla.
- Kendu bateria, eta gero, sartu berriz eta piztu telefonoa

### Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Erabili telefono mugikorra gomendatutako erabilera-kondizioetan

### Mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefonoa erabiltzen ez duzunean teklatura blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga

### Mugikorra ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu bateria ez dagoela erabat deskargatuta, kargaren irudiak hainbat minutu behar ditu eta gero txistu fin bat egin dezake
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C + 40 °C bitartean)
- Begiratu bateria sartuta dagoen. Sartu egin behar da kargagailua konektatu aurretik
- Ziurtatu Alcatel markako bateria eta kargagailua erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, egiaztatu korronte-hartuneen bateragarritasuna


### Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta

- Begiratu telefono mugikorrek beste sarearen bat aurkitzen duen beste toki batean
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren baliozkotasuna operadorearekin
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k) (ikus 79. orrialdean)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu

### SIM txartelaren errorea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela (ikus 13. orrialdea).
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3 V edo 1,8 V-ekin, lehengo 5 V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

### Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdekojeremuko kodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik debekatu (ikus 43. orrialdea)

### Ezin da deirik jaso

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela)
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez duzula irteerako deirik berbidali (ikus 43. orrialdea)
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu

### Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

### Deien audio-kalitatea ez da onena

- Deia egitean, Bolumena teklaren bidez doi dezakezu bolumena.
- Egiaztatu sarearen potentzia .

### **Ezin ditut eskuliburuan azaltzen diren funtzioak erabili**

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

### **Ezin dut agendako zenbakirik markatu**

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerria deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

### **Ezin dut kontakturik sortu nire agendan**

- Egiaztatu SIM txartela ez dagoela beteta; kendu fitxak edo gorde fitxak telefonoaren agendetan (profesionala, personala).

### **Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian**

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

### **Ezin naiz ahots-postontzira utzi**

- Egiaztatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia “Mis números” atalean gordeta dagoela
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta bada

### **Ezin dut mezurik bidali, ez jaso**

- Egiaztatu telefonoak memorian leku librea duela; beteta egon daiteke
- Egiaztatu operadorearekin zerbitzu hau erabil dezakezula, eta egiaztatu MMS parametroak (ikus 32. orrialdea)
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua
- Saiatu berriz gero; SMS zentroa beteta egon liteke

### **✉ ikonoa agertzen da hasierako pantailan**

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian: kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian

### **“Ningún servicio” mezua agertzen da**

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

### **Okerreko 3 PIN kode sartu ditut**

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

### **Telefonoari ezin diot ordenagailua konektatu**

- Lehenik, instalatu Alcatelen PCrako programen paketea
- Hautatu “Konexioaren instalazioa” konexioa instalatzeko
- Egiaztatu ordenagailuak Alcatelen PCrako programen paketea instalatzeko behar diren zehaztapen guztiak betetzen dituela

### **Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu**

- Egiaztatu lekua libre duzula
- Ezabatu zenbait fitxategi
- Hautatu MicroSD txartela deskargatutako fitxategiak gordetzeko
- Egiaztatu zure operadorearekin duzun harpidetzaren egoera.

### **Besteek ezin dute Bluetooth bidez telefonoa detektatu**

- Egiaztatu Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat (ikus 69. orrian)

### **Telefono mugikorra blokeatuta dago eta ez da pizten**

- Begiratu bateria kaltetuta edo erabat agortuta dagoen.
- Kendu bateria eta SIM txartela, eta, ondoren, sartu berriro. Piztu berriro gailua, oraindik funtzionatzen ez badu
- Sakatu bolumen-tekla gora, eta sakatu pizteko tekla, telefonoa berrezartzeko.



Erabiltzailearen telefonoko datu guztiak –kontaktuak, argazkiak, mezuak, artxiboak eta deskargatutako aplikazioak (Java jokoak, adibidez)– galdu egingo dira, behin betiko.

### **Nola lortu bateriak gehiago irautea**

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (3 ordu gutxienez)
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.
- Piztu hondoko argia behar duzunean.
- Ahalik eta gehiena handitu posta elektronikoa automatikoki begiratzeko tartea.
- Behar duzunean, eskuz eguneratu berriak eta eguraldiari buruzko informazioa, edo handitu automatikoki begiratzeko tartea.
- Irten Java bigarren planoan martxan izaten duten aplikazioetatik, luzaroan erabili ez behar badituzu.
- Desaktibatu Bluetooth, erabili behar ez baduzu.

Alcatel-Lucent-en marka erregistratua da ALCATEL, eta TCT Mobile Limited-en lizentziarekin erabiltzen da.

Eskubide guztiak, erreserbatuta © Copyright 2010 TCT Mobile Limited.

Aldez aurretik iragarri gabe materialak edo xehetasun teknikoak aldatzeko eskubidea du TCT Mobile Limited-ek.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen  
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de  
Gestión 2008